

Berdintasun- eta aniztasun-politika

1. Printzipioen adierazpena

CES, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak berretsi egiten du eskubideberdintasunaren, aniztasunarekiko errespetuaren eta pertsona guztientzako ingurune seguru, ekitatibo eta inklusiboen sustapenaren aldeko konpromisoa. Aintzatetsi egiten da erakundearen indarra Batzordea osatzen duten ibilbide, esperientzia eta perspektiben aniztasunean datzala.

Ildo horretatik CES, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, sustatzen duen ingurunearen ezaugarriak hauek dira: pertsona guztiak erabat garatu ahal izango diren ingurunea, generoagatiko, genero-identitateagatiko edo -adierazpenagatiko, sexu-orientazioagatiko, adinagatiko, dibertsitate funtzionalagatiko, jatorri etniko edo nazionalagatiko, ezaugarri fisikoengatiko, hizkuntzagatiko, sinesmenengatiko, egoera sozioekonomikoagatiko, migrazio-egoeragatiko edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatiko diskriminaziorik gabekoa. 2026ko otsailean laneko gatazkei, jazarpenari eta indarkeriari aurre egiteko protokoloa sinatu zen.

2. Helburuak

Politika honen helburuak honako hauek dira:

- Erakundeari lotutako pertsona guztien artean aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzea.
- Diskriminazio, jazarpen, indarkeria edo bazterkeria mota guztiak prebenitzea, detektatzea eta desagerraraztea.
- Sarbideari, parte-hartzeari eta erabakiak hartzeari dagokienez bidezko prozesuak, eskuragarriak eta gardenak, bermatzea.
- Errespetuan, ekitatean eta erantzunkidetasunean oinarritutako erakunde-kultura sustatzea.

3. Irismena

Politika hau CES, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari lotutako pertsona guztiei aplikatzen zaie, haien rola, maila hierarkikoa edo kontratu-harremana edozein dela ere, langileak, laguntzaileak, hornitzaileak, bisitariak eta euren jardueren garapenean parte hartzen edo elkarreragiten duten beste pertsona guztiak barne.

4. Konpromiso instituzionalak

CES, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Bere barne-araudiak, prozedurak eta praktikak berdintasun-, ekitate- eta inklusio-printzipioekin bat datozela ziurtatzea.
- Jarduera guztietan zeharka genero-ikuspegia eta giza eskubideena txertatzea.

- Berdintasunaren eta aniztasunaren arloko prestakuntza-, sentsibilizazio- eta gaikuntza-ekintzak sustatzea.
- Diskriminazio-, jazarpen- edo indarkeria-egoerekin lotutako salaketak jaso, artatu eta ebazteko mekanismo konfidentzial, seguru eta eraginkorrak ezartzea eta bermatzea.
- Politika honen betetze-mailaren etengabeko jarraipena egitea, eragina ikuspegi intersektionala duten adierazleen bidez ebaluatuz.

5. Erantzukizun partekatua

CES, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari lotutako pertsona guztiek dute politika honetan jasotako printzipioekiko errespetuz, osotasunez eta konpromisoz jokatzeko erantzukizuna.

Era berean, lidergo-eginkizunak dituztenek aktiboki sustatu beharko dute berdintasuna, jokabide diskriminatzaileak prebenitu beharko dituzte eta euren erantzukizun-eremuetan baldintza doiak eta bidezkoak bermatu beharko dituzte.

6. Berrikuspena eta etengabeko hobekuntza

CES, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak aldian-aldian berrikusiko du politika hau bere eraginkortasuna eta arau- eta gizarte-aldaketetara egokitzen dela bermatzeko. Prozesu hau erakundeko kolektiboen parte-hartzea sustatuz gauzatuko da, etengabeko hobekuntzarako konpromisoaren ildotik.